

Euria

Nire alaba kolegioan ikasten ari da. Aste honetan, gorputz heziketako irakasleak ezbehar bat ukan duenez, hezkuntza arduradunak gorputz heziketa ordua elkarbizitza lantzeko baliatu du, ikasleek arazoak adierazteko denbora eta ohitura har dezaten. Arazo bati kolektiboki doakion erantzuna edo konponbidea balora dezaten. Hauxe izan zen proposatutako gaia: izengoitiak. Norberak hautatu gabeko izengoitiak mingarriak ote dira? Zergatik? Kari horretara, alabaren ikaskide batek bere sufrimendua adierazi zuen: saskibaloian, eskolaz kanpoko aktibitateak, jolas lagunek *baskoy* deitzeko ohitura hartu dute. *Baskoy*, euskal izaera despreziatzeko erran molde arrunt bat da Iparraldean, *negro* edo *yopin* (judu) beste leku edo garai batzuetan erratan zen bezala. Bere arazoa eta mina azaldu orduko, mutila negarrez hasi zen: «Zergatik da txarra edo mespretxagarria euskalduna izatea?». Eta alabak erantsi dit momentu horretan bere ikaskide guztiguztiek adierazi zutela behin baino gehiagotan gertatu zitzaizela. «Niri ere gertatu zait, niri ere...», zurrumuru bat hedatu zen klasean. Denek memento batean

edo bestean iraina pairatu dute: supermerkatuan, aisialdi denboran, autobusean... Duela urte pare bat Iparraldeko beste kolegio batean gertatutakoa oroitarazi dit. Matematika irakasle batek, oker zebilen ikasle bati zera erranzion: «*T'es con ou t'es basque?*» (Tontoa zara edo euskalduna?). Eta klasea barrez lehertu zen. Ona txistea, ez? Duen arazo bakarra hau da: txiste berdina *baskoy* hitza *juif* edo *arabe* hitzarekin trukatu izan balu, irakasleak bere lana galduko luke, isun polit batekin, seguru.

Euskal izaera gurasoen izaera da, ametsen izaera, pentsaera baten izaera, maitasunarena. Gure azalaren kolorea euskara da. Eta XXI. mendean, Euskal Herrian, oraindik oso normalizatua da norberaren jatorria iraintzea eta bazterkeria kulturala praktikatzeta. Haurrek ez dute asmatzen, haurrei bazterkeria ez zaie *naturalki* heldu. Haurrek errepikatu

zuten dute gizartean eta etxean ikusi eta entzuten dutena. «Maitasuna ez da ikasten, gorrotoa bai», zioen Nelson Mandelak.

Izaera sozialaren patua berdin-berdin bizi daitekeela

pentsatzen dut. Urte hasieratik, 12 langile hil dira lanean, eta berriki bi desagertu dira. Ez da txikiak bat. Imaginatu dut 12-14 pertsona hil balira koronabirusak



Hainbat ikasle ikastetxera sartzen, Baionan, lehen eskola egunean. GUILAUME FAUVEAU

eraginik. Nolako panikoa sortuko zen... Zenbat bat-bateko neurri? Zenbat salbuespeneko aurrekontu eta kontzientzia hartze kolektibo? Imaginatu dezaket zenbat sailburu, zenbat gorbata izango ziren familien alboan, beraien elkartasuna adierazten. Zergatik ez da gertatzen oraingoan? Zeren oraingoan populazioaren atal gehatz bat ukitzen du izurriteak: langileak. Beraien lanean 12-14 kazetari, irakasle, artista, nagusi edo politikari hil balira urte hasieratik, beraien lan baldintzak ez lirerateke aldatuko errotik?

Hainbeste hil urte hasieratik ezin da kontsideratu zorte txarraren ondorioa denik. Ez da meteorologia arazo bat. Gizarte arazo larri bat da. Onartzea adin batetik gorako langileek lan arriskutsuak

egin ditzaketela hautu bat da. Onartzea langileek beraien bizitza arriskuan jartzea beraien familiak mantentzeko, hori hautu politiko bat da. Hautu politiko diskriminatzaile kriminal bat.

Isilpean onartzen diren bazterkeriak onetsitako bazterkeriak dira. Izan diskriminazio kulturala, diskriminazio soziala edo genero diskriminazioa. Bazterkeria horiek historia bat dute, eta kontatu behar ditugu. Eta zabaldu. Zeren, maleruski, politikoki neurri epelak hartzen dira sarritan. Ez omen da inor zauritu nahi, ez omen da erraza, ez omen da simplea. Ez da, ez. Baina, bitartean, gure haurrek bazterkeria jasaten dute egunegun, gure senideak hiltzen dira lanean, eta emakumeen lekua gizartean bigarren

mailako lekutik ateratzeko ezintasuna bermatua da. Hau dena kontatzen segituko dugu. Nire antzerkilari lana horrela ulertzen baitut: airean dagoena kontatu, irrien atzean gordetzen dena argitara ekarri, belaualdiz belaualdiz zabaldu eta transmititu diren zauriak hitzez adierazi.

Zaldi Urdina antzezlan hau da, ez besterik. Nahitara zabaldua izan den sumindura kontatzen du, izan diren konplizitateak inperpetuatu, aho zinta urratu, lotsa urruntzeko asmoz. Malkoz izanda ere, besarkadak beharrezkoak dira. Lurralde honek jasan dituen minak arintzeko, hitzak eta espazio sinbolikoak beharrezkoak dira. Eraiki ditzagun denon artean, goitik ez baita eurria baizik jautsiko.



LAUHAZKA
Ximun Fuchs

Izan berria laguna

Susta ezazu euskarazko kalitatezko kazetaritza

BERRIlaguna

Aukeratu kuota:

Hilean 10 €

Urtean 100 €

BERRIlagun harpideduna

Aukeratu harpidetza mota:

Asteartetik igandera, hilean 37 €

Asteartetik ostiralera, hilean 24 €

Ostiraletik igandera, hilean 22 €

Asteburukoa, hilean 16 €

BERRIlagun iragarlea

Aukeratu kuota:

Urtean 100 €

Urtean 225 €

Urtean 500 €

Urtean 150 €

Urtean 300 €

Urtean 1000 €